

AHANTZ

EZ

DAKIGUN



José Mari ARANALDE

Nik badakit, Txirritak bezala bere buruaz igerkizunik egin ez zuen arren, Mitxelenak gure artean aitamena izango dituela geroan. Horretarako ez dago igerle izan beharrik. Euskara bizi deno, eta euskararen bizi luzeaz nik ez dut dudarik egiten, ez da ahaztua izango errenteriarra, bertsolaririk den artean izango ez den bezalaxe hernaniarra.

Gero hori, ordea, nik ez nuke urrunegikoa izan dadin nahiko. Gaur ere gero da iadanik, eta nik gero honetan nahiko nuke ahantz ez dakigun gure hizkuntzalari gorena. Horregatik nator aurtan ere berarekin OARSO aldizkarira.

Egia esan, gauza haundirik ez dakart. Gure gizonak mezei bezelakorik ez behintzat. Oroitzapenak dakartzat bakarrik. Errezera jo dut. Egon nintzen irakurri berria dutan iritzi bati heldu eta Mitxelenaren estiloaz, edo estiloez, idatziko ote nuen; baina horrek neure buruari lan berri bat eranstea eskatzen zuen eta burutapen hura baztertu egin nuen. Idazlerik barrokoena dugula zioen delako iritzi harek. Hori zeukan, nonbait, esateko bakarra Mitxelenarentzat, gogoan ez dutan idazle harek. Bestelakorik ere bilatuko nuke nik, eta harek ere bai nahi baldin badu, KLASIKOAK sailean argitaratu diren bederatzi tomoak irakurtzerako. Gainera Mitxelenarengan, literato bat ez denez, estiloa dela uste dut gutxienezkoa. Baina ez naiz orain saltsa horretan sartuko. Nik oroitzapenak dakartzadala esan dut eta horiekin hasiko naiz. Oroitzapen goxoak. Horrelakoak dauzkat bakarrik nik gogoan. Beuzka nahi duenak bestelakoak.

Dantzan harritu ninduen behin gure hizkuntzalariak. Galarreta frontoiaren jatetxean zen. Ezkontza batean ginen. Haren eta nere lagun baten alaba ezkontzen zen. Bazkalondoan, ohizko dantzaldien ordua iritxi zenean, han atera zuten errenteriarra ere bere emazteak eta besteren batek dantzara. Eta nola egiten zuelako gero dantzan gure liburu-gizonak! Nolako elegantziarekin! Bazirudien baltsean ibili besterik ez zuela egin bere denbora guztian. Egia esan, kiloek ez zioten arin ibiltzerik galerazten; baina halaxe ere. Ordurako bazituen hirurogeiren bat urte Koldok. Eta orain, alabaren ezkontzaz ari garela eta, Mitxelenak eta biok aitarekiko izan genuen adostasun bat datorkit burura. Nere lagun zahar horri “Ud. es un volteriano” esan nion batean, “Mitxelena me dice lo mismo” erantzun zidan. Zer gizon puska huraxe ere!

Dantzan arin-arin gogoan dutan hura, hala ere, ez nuen egun hartan ezagutu. Ordurako bagenuen elkarren ezagutza. Aurrenekoz ikusi, nik uste, Leitzan egin nuen, Orizex Euskaltzaindian sarrera egin zuen egunean, 1957ko abenduaren 22an beraz. Eta lehenengo hitzaldia entzun, berriz, handik bizpahiru urtetara egin nion Donostian. Ez dut gau-

za askorik gogoan hitzaldi hartatik, baina bat bai. Noski Donostiako elizetan euskara eta euskaldunak bazirela, dirua eskatu behar zenean bakarrik gogoratzen omen ziren. Beste hitzik euskaraz erabiltzen ez zen meza gustietan ere, hila-betero seminariorako egiten zen eskea egiterakoan, honako txartel hau erabiltzen omen zuten: “GAUR DIRU-BILTZE EGUNA”. Eta egia da. Halaxe zen. Kritika-puntu horrekin gelditu nintzen egun hartan. Gerora ikusiko nion nabarmenago bere kritikotasun garbia.

Lehen hitzak trukatu ere garaitu horretan egin nituela daukat irudipena. Eta ez nolanahiko kontu bat zela eta. Gazte alenak gu! Proposamen batekin joan gintzaizkion maisuari. Euskara ikasten eta erakusten bagenbiltzan zer bait eta gramatika bateratu baten beharra sentitzen hasiak geunden. Bestela ez genekien zer ahutatu idazterakoan eta erakusterakoan. Eta delako gramatika hori egin zezan eskatzera joan gintzaizkion lagun batzuk. Baina ez genion lana bakarrik eskeintzen. Soldata bat ere pentsatua geneukan berarentzat. Hitzemanak geunden elkarri zenbait jende, hilerio hoinbesteko bat biltzeko. Horrelakoxe kontuak medio egin nituen nik bi hitz lehenengo aldiz Mitxelenarekin. Ez zigun baiezkorik eman. Eskertu gintuen eta eskertu zizkigun eskeintza eta erakusten genion itzimazioa, baina ez zezakeela esan zigun. Geroritik hamaika aldiz gogoratu zait gure orduko ausardia.

Burutik joaten ez zaidan beste oroitzapen bat ere badut nik Mitxelenarena. Gipuzkoako Foru Aldundiko arkupetakoa da. Euskaltzaindiako bileraren baten aurretikoa edo ondorengoa behar du izan. Euskera batuaren auzia puri-purian zegoen garaikoa da. Eta zeinek ez daki nolako astinduak hartu behar izan zituen errenteriarrek auzi hori zela medio? Astinaldi bat eman berri-berria zion sotanadun bat han zegoen arkupetan egun hartan. Eta han joan zitzaion Errenteriko jakintxua eskua ematera eta bere betiko humorearekin eta irriparrarekin ihardun zuen sotanadunarekin, ezer pasa ez balitz bezalaxe. Begietan daukat oraindik bikote hura. Nekez ahaztuko zait neri egun hartan ikusia eta errenteriarren jokabidea.

Eta ahazten ez zaizkidanak, batez ere, naizena naizelako edo, behin irakurri nion pentsamendu bat eta beste behin entzun nion beste bat dira. Martin Ugalde jaunarekin egiten duen elkarriketa ezagun hartekoa dela uste dut bata; baina nongoa den da gutxienezkoa. Erljio-kontukoa duzu. Mitxelenak han esaten duenez, begirune haundia dio berak erlijioari. Eta gero honako ohar hau egiten du: Zenbait erlijio-behar gehiago erakusten du beste zenbaitetik baino. Oso jakingarria iruditzen zitzaidan oharra. Lehenengo batean Octavio Paz poeta mexikarrak esaten zuen gizakia abere “reli-

gioso” dela. Eta ez da gezurra, historia eta prehistoria ikusten baditugu; baina denok ez dugu nonbait erlijio-grina bera eta berdina. Hori Mitxelenari ikasi diot, beste gauza asko bezalaxe. Neri balio dit maixuaren intuizioak. Ederra da begi-kolpea.

Bigarrena ere hari bereko pentsamendua da nik Mitxelenari jaso niona. Bazkalondoko solasaldi batean jaso nion. Gurekin zegoenean askotan jotzen zuen erlijio-kontuetara. Egun hartan ere bai. Ez dakit zeinek edo zerk ekarri zuen hizpidea. Teologia hau eta teologia hura eta horrelako gaiak generabizkien. Ari ginen hau eta hori eta bestea, eta halako batean hala bota zigun errenteriarak: Nahi duzuen, baina ez dago inolako teologiarik, Jainkoa predikatzen ez badu.

Gogoan jaso nuen arrazoi huraxe. Argi-iturri bakarra, nere ustez ere, Jainkoa da. Beste zera-gintza guztietan hutsegin baleza ere fededunak, horretan irauten duen bitartean, gizaritari beti emango dio beste ezerk ordain ez dezaken zerbait. Hori du berea fededunak.

Horiek eta hemen esan gabe utzi dudan beste hainbat oroitzapenek ekartzen didate neri maiz gogora errenteriar haundia. Haren ekarria ez dezake ahantz euskaldunak. Nik horregatik gogora erazi nahi izan dut OARSO aldizkari honetan. Errenteriak ohore egina dio; baina benetan ohoratu nahi baldin badu, haren jakinduria eta haren mezua egunero eskuartean erabiliz agin beharko du. Eta Euskal Herriak ere berdin. Errenteriarak bizirik iraun behar du gure oroimenean, zerbait baldin bagara eta izan nahi baldin badugu.

KOLDO MITXELENA

EUSKAL IDAZLAN GUZTIAK

V

LITERATURAREN INGURUAN II

EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA